

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Zabalik dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzeko epea

*Testua Gobernu Irekiaren atalean eskuragai dago, eta urriaren 18ra arte ekarpenak egin daitezke*

Osteguna, 2018.eko irailak 20

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektua [Anteproyecto de Ley Foral](#) fase berri batean dago parlamentuan izapidetu aurretik, eta urriaren 18ra arte zabalik dago jendaurrean jartzeko epea, Gobernu Irekiaren atariko [lotura honetan](#):

Aurreproiektuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko politika publikoen lege markoa ezartzen du. Horren bidez, emakumeen eskubideen aldeko eta genero-arraila errotik mozteko borrokaren abangoardian egongo da Nafarroa.

Legeak berdintasun-printzipioaren zeharkakotasuna berdintasun-eskubidea bermatzeko tresnatzat erabiltzea du xede, eta emakumeen jabeakuntza da haren lehentasunezko gaia. Halaber, bizitzaren iraunkortasuna hartzen du oinarritzat gizarte-eredua aldatu eta bizitzaren ezinbesteko aspektuak balioan jar daitezzen, eta maila horretan jartzen du ere lan erreproduktiboa, iraunkortasunerako beharrezkoak diren etxeko zainketen eta zereginen erantzukidetasunetik hasita enplegua berdintasun-baldintzetan eskuratzearaino.

Hiritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua 2017an hasi zen Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (INAI/NABI) bitartez aurreproiektuaren zirriborroa prestatzen.

Lehenbizi, Gobernuko sailek, iturri kualitatiboek eta funtsezko informatzaileek emandako informazioarekin egoeraren diagnostikoa egin zen. Informazio horri esker, genero-arraila nagusiak detektatu ziren.

INAI/NABI arloari buruzko nazioarteko arautegian eta Espainiako legedian oinarritu da lege marko berria barne hartzen duen Oinarrien Agiria egiteko. Profesionalek eta hiritarrek ere testuaren lanketan parte hartu dute. Ekarpene telematikoak egin dira, eta profisionalekin eta elkarteekin talde-saioak prestatu dira, agiriaren idazketarako proposamenak jasotzeko. Guztira 400 iradokizun jaso dira.

Testuak 5 izenburu eta 62 artikulua biltzen ditu. Bizitzako eremu guztietarako balio duen berdintasun-eskubidearen printzipioan oinarritzen da, eta eskubide hori gauzatzeko baldintzak sustatzea du xede.